# Juul 2012 - Irakurketa ohiturak galdesorta

## LH (4-5-6), LM (4-5), KOLEGIOA (6)
## DBH, Kolegioa (5-4-3), Lizeoa (2)

**LH, LM, K** **IKASTOLA: 24** **JASOTAKO ERANTZUNAK: 1.609**

**DBH, K, L** **IKASTOLA: 12** **JASOTAKO ERANTZUNAK: 914**

**1. Zer zara, neska ala mutila?**

| | |
|---|---|
|  | **LH, LM, K**<br>**Neska 795 49%**<br>**Mutila 814 51%** |
|  | **DBH, K, L**<br>**Neska 439 48%**<br>**Mutila 475 52%** |

## Hauek dira joera berdintsua duten itemak LHn eta DBHn:

**Zein dira liburu berri bat aukeratzeko arrazoi nagusiak? (Bat baino gehiago aukeratu al zenez, ehunekoak %100 gainditu dezakete)**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| **Telebistan ala irratian entzutea** | 168 | 10% | 60 | 7% |
| **Irakasleak gomendatzea** | 462 | 29% | 190 | 21% |
| **Lagunek gustukoa izatea** | 585 | 36% | 421 | 46% |
| **Bilduma batekoa izatea** | 436 | 27% | 178 | 19% |
| **Liburuaren itxura eta laburpena** | 736 | 46% | 486 | 53% |
| **Irakasleek edo gurasoek behartzea** | 148 | 9% | 175 | 19% |
| **Beste bat** | 185 | 11% | 86 | 9% |







- **Garbi ikusten da liburuaren itxuran eta azalean agertzen den informazioa dela liburu bat aukeratzeko garaian lehenengo faktorea. Bigarrena, lagunek gustukoa izatea, helduoi pasatzen zaigun moduan.**
- **Lehen Hezkuntzan irakasleen garrantzia liburua aukeratzeko orduan altuagoa da DBHn baino baina bada beste pisuzko faktorea.**

**Zein da irakurtzeko tokirik gustukoena? (Bat baino gehiago aukeratu al zenez, ehunekoak %100 gainditu dezakete)**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| Ikastola | 197 | 12% | 108 | 12% |
| Nire logela | 1292 | 80% | 718 | 79% |
| Egongela | 265 | 16% | 192 | 21% |
| Komuna | 40 | 2% | 89 | 10% |
| Kalea | 10 | 1% | 23 | 3% |
| Herriko liburutegia | 163 | 10% | 57 | 6% |
| Autoa, autobusa edo metroa | 46 | 3% | 39 | 4% |







- **Logela da, diferentziaz, irakurtzeko tokirik gustukoena. Bertan dagoen lasaitasunak laguntzen du irakurketan murgiltzen, eta, bestalde, ohiturak asko egiten du: txikitatik haurrei logelan irakurtzen zaie ohera joan aurretik eta aurrerako ohitura horrekin jarraitzen dutela ikusten da.**

**Zein motatako liburuak dituzu gustuko? (Bat baino gehiago aukeratu al zenez, ehunekoak %100 gainditu dezakete)**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **LH, LM, K** | | | **DBH, K, L** | | |
| **Beldurrezkoak** | **730** | **45%** | | **379** | **41%** | |
| **Abenturazkoak** | **1380** | **86%** | | **617** | **68%** | |
| **Amodiozkoak** | | **167** | **10%** | | **304** | **33%** |
| **Umorezkoak** | | **715** | **44%** | | **427** | **47%** |
| **Drama** | | **148** | **9%** | | **124** | **14%** |
| **Olerkiak** | **106** | **7%** | | **21** | **2%** | |
| **Komikiak** | **484** | **30%** | | **226** | **25%** | |







- **Emaitzak parekatuta daude erabat. Aldaketa bakarra amodiozkoen ehunekoa igotzen dela DBHn.**

**Liburuak irakurtzen al ditu zure amak?**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| **Bai** | 1008 | 63% | 634 | 69% |
| **Ez** | 168 | 10% | 99 | 11% |
| **Batzuetan** | 403 | 25% | 166 | 18% |







**Liburuak irakurtzen al ditu zure aitak?**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| **Bai** | 635 | 39% | 382 | 42% |
| **Ez** | 491 | 31% | 308 | 34% |
| **Batzuetan** | 469 | 39% | 219 | 245 |







- **Bi galdera hauekin ikusten da emakumeek orokorrean gizonezkoek baino askoz ere gehiago irakurtzen dutela. Diferentzia nabarmena oso eta agian kezkagarria, gizonezkoen herena ez duelako, seme-alaben iritziz libururik irakurtzen.**

## Hauek dira joera EZberdintsua duten itemak LHn eta DBHn:

**Irakurtzea gustatzen zaizula esango zenuke?**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| Pixka bat | 614 | 38% | 403 | 44% |
| Bai, asko | 847 | 53% | 251 | 27% |
| Gutxi | 69 | 4% | 142 | 16% |
| Ez zait gustatzen | 79 | 5% | 118 | 13% |







- **Pozgarria da LHko ikasleen erdia irakurtzea asko gustatzen zaiela ikustea. DBHn asko jaisten da portzentaje hori baina orokorrean esan dezakegu (pixka bat eta askoren emaitzak batuz) gure gazteek gustuko dutela irakurtzea.**
- **Ezezkoen zatia ere azpimarra daiteke, ehun ikasletik 5k Lehen Hezkuntzan (9 gutxi erantzun dutenekin elkartuz) eta ehun ikasletik 13k (29 gutxi erantzun dutenekin elkartuz). Garbi ikusten da ia heren bat dela DBHn irakurtzea gustuko ez duena eta hori kontuan hartu behar da irakurzaletasuna bultzatzeko momentuan.**

**Zure ustez, Juul Kanpainak gehiago irakurtzeko balio al du?**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| Bai | 1180 | 76% | 304 | 33% |
| Pixka bat | 296 | 18% | 319 | 35% |
| Ez | 84 | 5% | 247 | 27% |
| Beste bat | 49 | 3% | 44 | 5% |







- Gehiengo batek baietz esaten du Lehen Hezkuntzan. Horrek adierazten du adin honetan kanpainak ilusioa pizten duela eta orokorrean gogoz erantzuten diola kanpainaren proposamenei.
- DBHn jaitsiera nabarmena da, kritikoagoak dira adin honetan, zailago motibatzen, baina orokorrean Bai eta Pixka bat portzentajeak batuz emaitza polita ateratzen da Juul kanpainaren eraginkortasunaren alde.

**Zenbat liburu irakurtzen dituzu hilero?**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| Zero patatero | 36 | 2% | 167 | 18% |
| 1 | 384 | 24% | 439 | 48% |
| 2-3 | 838 | 52% | 256 | 28% |
| 4 edo gehiago | 351 | 22% | 52 | 6% |






**Irakurtzen dituzun liburuak, nola lortzen dituzu nagusiki? (Bat baino gehiago aukeratu al zenez, ehunekoak %100 gainditu dezakete)**

| | LH, LM, K | | DBH, K, L | |
|---|---|---|---|---|
| Opariak dira | 823 | 51% | 381 | 42% |
| Nik erosten ditut | 675 | 42% | 435 | 48% |
| Lagunek uzten dizkidate | 292 | 18% | 235 | 26% |
| Ikastolakoak dira | 552 | 34% | 224 | 25% |
| Herriko liburutegikoak dira | 454 | 28% | 263 | 29% |
| Nire familiakoak dira | 331 | 21% | 187 | 20% |







- **Kuriosoa LHtik DBHra dagoen bilakaera. LHn batik bat opariak izatetik, DBHn ikasle berak hartzen du liburua erosteko erabakia, herriko liburutegia, lagunen trukaketa eta ikastolak garrantzi gutxiago hartuz liburuak eskuratzeko orduan.**
- **Lagunen arteko trukaketa DBHn LH baino altuagoa da baina ez da nabarmena. Agian trukaketa bultzatzeko kanpainak abian jarri beharko genituzke erosten diren liburuek irakurle asko auki ditzaten.**